Gobierno de Navarra
Departamento de Educación

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

# NAFARROAKO GOBERNUKO HEZKUNTZA DEPARTAMENTUAREN ETA EUSKO JAURLARITZAKO KULTURA SAILAREN ARTEKO ASMOEN ADIERAZPENA

# DECLARACIÓN DE VOLUNTADES ENTRE EL DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN DEL GOBIERNO DE NAVARRA Y EL DEPARTAMENTO DE CULTURA DEL GOBIERNO VASCO

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 26an, CARLOS PÉREZ-NIEVAS LÓPEZ DE GOICOECHEA, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza kontseilaria, eta MIREN AZKARATE VILLAR, Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua, euskara kultura-loturatzat harturik, ondarea sustatzeko eta bultzatzeko bakoitzak dituen eskumenak erabiliz, Asmoen Adierazpen hau izenpetzen dute, aurretik kontsiderazio hauek eginik:

1) Euskarabidea Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuari atxikitako erakunde autonomoa da eta bere eginkizunen artean honako hauek esleiturik ditu: euskara garatzeko programak eta jarduerak sustatzea, laguntzea eta antolatzea, entitate eta administrazio publikoekin elkarlanean; Nafarroako Foru Komunitatetik kanpoko entitateekin elkarlanean aritzea, Nafarroako euskararen presentzia, erabilera eta ikaskuntza bultzatzearren; eta Foru Komunitatean bizi ez diren bestelako euskaldun taldeekiko harremanak sustatzea.

2) Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak, "Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren 2005-2009

En Pamplona, el 26 de enero de 2009, CARLOS PÉREZ-NIEVAS LÓPEZ DE GOICOECHEA, Consejero de Educación del Gobierno de Navarra, y MIREN AZKARATE VILLAR, Consejera de Cultura del Gobierno Vasco, en sus respectivas competencias de fomento e impulso del hecho patrimonial que significa el euskera como vínculo cultural, suscriben la presente Declaración de Voluntades, previas las siguientes consideraciones:

1) Que Euskarabidea-Instituto Navarro del Vascuence, organismo autónomo adscrito al Departamento de Educación del Gobierno de Navarra, tiene asignadas entre sus funciones el fomento, apoyo y organización de programas y actividades de desarrollo del euskera en cooperación con las distintas Entidades y Administraciones Públicas, la colaboración con entidades de fuera de la Comunidad Foral de Navarra para promover la presencia, el uso y aprendizaje del euskera de Navarra, y el fomento de las relaciones con otros grupos de vascoparlantes que residan fuera de la Comunidad Foral.

2) Que el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco, en su "Proyecto 2005-2009 de la Viceconsejería de Política

Egitasmoan", bere jardunbide nagusien artean honako hau du: euskararen erabilera sustatzeko jarduna bultzatzea, Nafarroako erakundeekin lankidetza bideratuz, Nafarroako Gobernuarekin batera programak hitzartzeko beharrezkoak diren urratsak egiteko asmoz.

3) Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak esperientzia zabala du soziolinguistikako ikerketan eta diagnosian, euskararen hizkuntza-normalizaziorako lege-garapenean eta plangintzan, eta hizkuntzen programen eta ekintzen inplementazioan, hizkuntza-koofizialtasuneko testuinguruetan.

4) Helduen euskararen irakaskuntzaren alorrean, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari atxikita dagoen HABE erakundeak Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikulua duela ezarria Euskal Autonomia Erkidegoko euskaltegien sarean, bai eta horri dagokion egiaztatze-sistema ere, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratura egokitua.

5) Europako Kontseiluko Adituen Batzordeak Eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen Europako Gutunaren 2005eko jarraipen txostenean egindako gomendioen artean ageri da Nafarroako Foru Komunitateko eta Euskal Autonomia Erkidegoko sustapen, ikerketa, dokumentazio, plangintza eta hizkuntza politikaren sistemen artean loturak estutzeko beharra.

Lingüística", contempla entre sus líneas de actuación el impulso de la acción de fomento del uso del euskera encauzando la colaboración con las instituciones de Navarra con la voluntad de dar los pasos necesarios para concertar programas con el Gobierno de Navarra.

3) Que la Viceconsejería de Política Lingüística del Gobierno Vasco cuenta con una dilatada experiencia en materia de investigación y diagnóstico sociolingüístico, desarrollo legislativo y planificación en materia de normalización lingüística del euskera, así como en la implementación de programas y acciones de lenguas en contextos de cooficialidad lingüística.

4) Que en el ámbito de la enseñanza de euskera a adultos, el Instituto HABE, adscrito al Departamento de Cultura del Gobierno Vasco, tiene implantado en la red de euskaltegis de la Comunidad Autónoma Vasca el Currículo Básico para la Enseñanza de Euskara a Adultos, así como su correspondiente sistema de acreditaciones adaptado al Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas.

5) Que entre las recomendaciones aportadas por el Comité de Expertos del Consejo de Europa en el informe de seguimiento de la Carta europea de lenguas regionales o minoritarias correspondiente a 2005 figuraba el estrechar los vínculos entre los sistemas de promoción, investigación, documentación, planificación y política lingüística de la Comunidad Foral de Navarra y la Comunidad Autónoma del País Vasco, con el fin de mejorar la cooperación en materia de

6) Halaber, Europako Kontseilua, Eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen Europako Gutunaren 2008ko jarraipen txostenean, poztu egiten da, euskara ardatz modura harturik, Eusko Jaurlaritzaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko harremanetan gertatu den "aldaketa historikoagatik" eta, orobat, adoretzen ditu "agintari eskudunak Gutunean ezarritako esparruetan Euskadiren eta Nafarroaren arteko lankidetza sendotzeko bideak bila ditzaten".

7) Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak, nor bere eskumenen esparru propioan, euskararen hizkuntza-normalizazioaren alorrean esperientziak eta informazioa elkarri trukatu nahi dizkiote.

Ikusirik aurretiko kontsiderazioak, Asmoen Adierazpen hau izenpetzen duten aldeek honako konpromiso hauek hitzartzen dituzte:

1. Nafarroako Foru Komunitatearen eta Euskal Autonomia Erkidegoaren artean sustapena, ikerketa, dokumentazioa, plangintza eta hizkuntza politika sustatzeko harremanak estutzea, euskararen hizkuntza-normalizazioaren alorrean lankidetza eta erlazioa hobetuz.

2. Asmoen Aitorpen honen ondorioz ezarriko den baterako ekintzaren lehentasunezko helburuetako bat izanen da hizkuntza politikaren alorrean lankidetza teknikorako

normalización lingüística del euskera.

6) Que, asimismo, el Consejo de Europa, en su informe de seguimiento de la Carta europea de lenguas regionales o minoritarias de 2008, se felicita por el "cambio histórico" que se ha producido en la relación entre el Gobierno Vasco y el Gobierno de Navarra tomando como eje la lengua vasca, y alienta "a las autoridades competentes a hallar modos de reforzar la cooperación entre el País Vasco y Navarra en los ámbitos previstos en la Carta".

7) Que el Departamento de Educación del Gobierno de Navarra y el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco, en el ámbito propio de sus respectivas competencias, comparten el interés por el intercambio de experiencias e información en materia de normalización lingüística del euskera.

Vistas las anteriores consideraciones, las partes que suscriben la presente Declaración de Voluntades convienen los siguientes compromisos:

1. Estrechar los vínculos para impulsar la promoción, investigación, documentación, planificación y política lingüística de la Comunidad Foral de Navarra y la Comunidad Autónoma de Euskadi, con el fin de mejorar la cooperación e interrelación en materia de normalización lingüística del euskera.

2. La acción conjunta que se aplique en virtud de la presente Declaración de Voluntades tendrá como uno de sus objetivos preferentes apuntar vínculos de cooperación técnica en materia de

loturak ezartzea, informazioa eta jakintza elkarri trukatzeko, eta helduen euskalduntzearen eta alfabetatzearen esparruan jarduerak koordinatzeko. Hori guztia, euskara helduei irakasteari begira, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuan ezarritakoari egokitzen zaion oinarrizko kurrikulu komuna eratzeko eta bi administrazioek homologatu beharreko egiaztatzeak eta titulazioak ezartzeko.

3. Asmoen Adierazpen honek ondorioak izanen ditu sinatzen den egunean berean eta indarra izaten segituko du bi aldeek beste lankidetza-esparru bat eratu arte.

política lingüística que comporten el intercambio de información y conocimiento, y coordinación de actuaciones en el ámbito de la euskaldunización y alfabetización de adultos. Todo ello con la finalidad de constituir un curriculum básico y común para la enseñanza del euskera para adultos que se adapte a lo que establece el Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas que sirva para establecer unas acreditaciones y titulaciones que puedan ser homologadas por las dos Administraciones.

3. La presente Declaración de Voluntades producirá efectos en la fecha de su firma y mantendrá su vigencia hasta que ambas partes formen un nuevo marco de colaboración.

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 26an, jatorrizko bi kopia berdin eta baliozkoetan.
Pamplona, 26 de enero de 2009, en dos copias originales igualmente válidas.

**Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea**
Nafarroako Gobernuko Hezkuntza kontseilaria
Consejero de Educación del Gobierno de Navarra

**Miren Azkarate Villar**
Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua
Consejera de Cultura del Gobierno Vasco